

Benicassim



Dena prest

kaleratu du The Verve desegin ondoren—; eta Primal Scream. Maravillas agertokian pop ingele-sa nagusi izango den bezala, Viaje a los sueños polares agertokian, berriz, eklektizismoa nagusituko da. Hala eta guztiz ere, jaialdiko emanaldirik interesgarrienak han izango dira. Lambchop-ek eta Dakota Suitek erakutsi ahal izango dute zergatik diren country intimistaren ordezkari nagusietakoak, eta Mojave 3k *Excuses for travellers* disko ederra zuzenean emango du. Horiekin batera, Doves, Perry Blake crooner berria—Bilbon jo behar zuen orain dela hilabete batzuk, baina bertan behera gelditu zen emanaldia— eta Michel Houellebecq idazle frantziarraren proiektu musikala izango dira Viaje a los sueños polares

mikel lizarraide

Benicassimgo nazioarteko jaialdia da poparen jarraitzaileek—hitz horren zentzu zabalean— udan izaten duten hitzordurik garrantzitsuenetakoa, eta aurten ere musikazaleen interesa pizteko eskaintza polita izango du. Hurrengo asteburuan, hilaren 4tik 6ra, egingo da jaialdia Benicassim herrian (Castello), eta ohi bezala, izen ezagunekin batera, talde ezezagunago baina oso interesgarriak zuzenean entzuteko eta ikusteko aukera emango du. Jaialdia bera ere agertoki bat baino gehiagotan egingo da; horietako bakoitzak nortasun berezia izatea nahi baitute antolatzaileek.

Maravillas agertokiak jasoko ditu talde ezagunen kontzertuak. Han izango dira, besteak beste, Oasis—Noel Gallagher gitarra jolerik gabe, antza denez—; Ian Brown, Stone Rosese-ko abeslari ohia; Johnny Marr's Healers—The Smiths taldeko gitarra jolearen proiektu berria—; Embrace; Placebo; Elastica; Morcheeba; Richard Ashcroft—bere lehenengo diskoa

agertokian.

Urbe.es agertokian elektronikaren eta poparen artean mugitzen diren artistak bilduko dira. Izen handiak izango dira bertan, eta aipa ditzagun gutxienez horietako batzuk: Roni Size's Reprazement, Saint Etienne, Moloko, Jay Jay Johanson, Laika, Pizzicato Five...

Jaialdia 4tik 6ra egingo da, baina aurreko egunean bertaratuko direnek ongi etorri jaia izango dute. Han joko du beste batzuen artean Australian Blondek—Steve Wynn handiak lagunduta—.

Hiru egunetarako bonoak (kanpatzeko eskubidea barne) 15.150 pezetan daude salgai.

Informazioa: www.festival-benicassim.com eta 906 300036 telefono zenbakia.

Benicassimgo jaialdia

Abuztuaren 4tik 6ra
Ostirala: Oasis, Ian Brown, Gus Gus, Mojave 3, Looper, Los Planetas, Jean Louis Murat, Roni Size's Reprazement, Jay Jay Johanson...
Larunbata: Primal Scream, Johnny Marr's Healers, Morcheeba, Lambchop, Michel Houellebecq, Migala, Saint Etienne, Laika...
Igandea: Richard Ashcroft, Placebo, Elastica, Six By Seven, Doves, Dakota Suite, Moloko, Pizzicato Five...

Mondo Fumatore

mikel lizarraide

Mondo Fumatore taldea orain dela hilabete batzuk izan zen gure artean—Bergaran, Hefnerrekin jo zuen, eta Bilbon ere izan zen—; kontzertu haietan zapore oso ona utzi zuen, eta berrir ere gure artean dugu Berlingo taldea. Gainera, Bilbon musika kontzertuetarako ireki berri den Azkena kafe antzokian izango da emanaldia. Ibañez de Bilbao 26 helbidean dago areto berria, eta 400 lagun inguruntzako tokia du. Kafe Antzokiari eta Bilborocki, beraz, beste areto bat gehitu behar zaie Bilbon.

Lokal berriari estreinaldia emateko Mondo Fumatore taldea etorriko da, eta kontuan izanik kontzertua doakoa dela eta Berlingo taldea gero eta ezagunagoa dela gure artean, ez litzateke arraroa



Mundu bitxia

jende multzo handi bat biltzea bertan.

Mondo Fumatore talde bitxia da, eta bere ibilbidea ere bitxia izan da. Mondo Marc abeslari eta gitarra jole bartzelonarrak sortu zuen, orain lau urte—duela hamabi urtetik bizi da Alemaniako hiriburuan—, Gwendolin baxu jolea eta Berndt bateria jole estatubatuarra bere albora bildu ondoren, eta 1998an bere lehenengo diskoa kale-

ratu zuten (*Rolling like an egg*). Lan hark EEBetako indie-rockarekiko loturak erakusten zituen, eta erabiltzen zituen tresnak zirela eta—makinitak, gitarrak, sampler-ak, pedalak—, Beck, Sebadoh eta lo-fi soinu lan-tzen duten taldeetatik gertu zegoen. Diskoak taldea eza-gutzero emateko balio izan zuen, eta bide batez, talde mordoxka batekin jotzeko ateak ireki zizkien: Luna, Se-

badoh, Urisei Yatsura, Come, Deus, Chuck Prophet, Placebo... izen ezagunekin jo dute berlingarrek.

Orain Mondo Fumatore Plays Rodeo diskoarekin eta kide gutxiagorekin—Berndtek utzi egin du taldea—datozkigu. Bateriaren ordeza guztietako tresna bitxi eta elektronikoa erabiltzen dituzte, baina Mondo Fumatoreren munduak antzekoa izaten jarraitzen du. Rock alaia, abangoardista (batzuetan) eta bitxia (gehienetan) aurki-

daiteke bertan. Une batzuetan Beckengandik eta beste batzuetan Jon Spencerrengandik gertu, Mondo Fumatorek Guided by Voices eta Pavement diskoen ondoan gordetzeko lana egin du.

Jakinda zuzenean kontzertu bizi eta bereziak egiten dituztela—musika tresnak elkarri trukatzeko dizkiote—, gomendagarria da oso gaurko jaialdia.

Mondo Fumatore

Bilboko Azkena kafe antzokian
Gaur, 21:00etan.



Tel: 94 623 18 24
Fax: 94 658 24 86

Montoroste kalea
2. zklia - Pk. 93
48230 Elorrio-Bizkaia

Bide Ertzean
Ene bada!
Hyssopus
Las Ratas

Email: tkk.soinua@euskalnet.net